

# Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2012ko iraila • 271. alea



**PROTESTAK KALEAN**  
**Lorpen sozialen alde**  
**eta beldurraren kontra**

# IBAILAGUN 2012

## IZEN-EMATEA

debaibaia@debegesa.com

943 82 01 10

Izena emateko azken eguna

**URRIAK 1**

## SORALUZE

## DEBA IBAIA GARBITZEKO II JARDUNALDIA

Aurten, bigarren urtez, Deba ibaia auzolanean garbitzeko saioak burutuko ditugu Soraluzean. Parte hartu!

**ORDUA: 10:00etan**

**TOKIA: udaletxean**

**13:00etan**, eskerrak emateko, luntxa eskainiko da.



ur  
agencia vasca del agua



Debarrenko Garapen  
Ekonomikarako Elkartea  
Sociedad para el Desarrollo  
Económico de Debarrena



SORALUZKO UDALA



# MAHAINGURUA

## GAIA: SAKABANAKETA

Urriak 2 martitzena, 19:00etan zinian

**Moderatzailea:** Ubane Madera (kazetaria)

**Solaskideak:** Peio Etxeberria (preso ohia)  
Regina Maiztegi (preso ohia)  
Koldo Heriz (Asier Herizen anaia)  
Mikel Argarate (istripua jasandakoa)





# Aldaketak gurean

Irakurle estimatua,  
Dagoeneko zuotako askok jakinaren gainean izango zarete aldizkaria hilean behin kaleratzeko erabakia hartu dugula. Hainbat eta hainbat izan dira irailean zehar kalean zuen kezka adierazi diguzuen herritarrak. Hain zuzen, hartutako erabakia hartzeko arrazoiak zein diren azaldu eta aldaketan berri eman nahi dizuegu ondorengo lerrootan.

## BAILARAKO EGITASMOA

Badira zenbait urte Debabarreneko gainerako herrietako euskarazko hedabideekin batera bailara mailako komunikazio egitasmo bateratua martxan jartzeko aukera aztertzen dihardugula. Ermua, Eibar, Elgoibar, Mendaro eta Debako euskara elkarteekin batera gure bailarako euskal hitzunei komunikazio zerbitzu hobea eskainiko liokeen komunikabidea sortzea litzateke helburua. Hain zuzen, egitasmo horri behar duen indarra eskaintzeko eta balizko aldaketa horri begira elkartean egin beharreko egokitzapenak egin ahal izateko hartu dugu aldizkaria hilabetekari bihurtzeko erabakia. Bailarako egitasmoa martxan jarri arteko erabakia litzateke orduan, behin behinekoa.

**Hilabetekari bihurtzea bailarako egitasmoa martxan jarri artekoa da, behin behinekoa, baina egoera ekonomikoak ere izan du eragina.**



## EGOERA EKONOMIKOA

Ez genuke egia osoa esango, erabaki horretan faktore ekonomikoak duen garrantzia aitortuko ez bagenu. Azken hilabeteotan egoera ekonomikoak izan duen bilakaerak eragin zuzena izan du gurean ere. Aurten dirulaguntzek eta iragarkiek behera egin dute eta horrek gure hedabideen egoera ekonomikoa estutu egin du. Hori dela eta, hainbat neurri hartu behar izan ditugu. Batetik, hedabideetan diharduten langileen dedikazioa %25ean murriztu dugu eta bestetik erdira jeitsi ditugu inprenta gastuak.

## ALDAKETAK ETA HOBEKUNTZAK

Pil-pileaneko hedabideon jarduna eraginkorrago eta hurbilago egiteko helburuarekin hainbat aldaketa bideratuko ditugu datozen hilabeteotan. Aldizkariok begien bistan dituzue. Diseinu berria eta edukietan egokitzapen batzuk eginda aldizkaria irakurterrezago egin nahi izan dugu. Plaentzia.comen eta Arrateko irratsaioaren txanda etorriko da gero. Webgunean egunerokotasuna lantzeko eta aldizkariaren bitartez eduki landuagoak eskaintzeko ahalegina egingo dugu.

Ez genuke idatzi hau amaitu nahi gure jardunari sostengua ematen diotuenok eskertu gabe. Eskerrik asko bihotz-bihotzez herriko merkatarioi, elkarteok 330 bazkideoi, udalari eta irakurle zituztegunoi. Animo guztioi sasoi korapilatsu honetan.

Adeitasunez,

Hedabideetako erredakzio batzordea  
PIL-PILEAN EUSKARA ELKARTEA

**Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariako esanen eta iritzien erantzunkizunik.**

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com  
**Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Egoitz Unamuno **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta L. Iturbe **Publizitatea:** Egoitz Unamuno **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua:** Iñigo Uribetxebarria **Maketazioa:** Iñigo Uribetxebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale I.Z.K.a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



## Gutunak

### Soraluzeko EAJ/PNV **Nork gobernatzea nahi duzu?**

EAEko hauteskundeak urriaren 21ean. Herritarron artean kezka gehien sortzen duen gaia krisi ekonomikoarena da, eta bereziki langabeziarena. Nork ez du ezagutzen, famili, lagun eta ezagunen artean lanik gabe geratu den inor? Gure herriko datuak ez dira batere baikorrak. % 16ko langabezi-tasa, Debabarreneko herrien artean altuena. Abuztuko datuen arabera 321 langabetu daude. Gipuzkoan % 12,5 eta EAEn % 15. Bien bitartean, Soraluzeko Udala kudeatzen duen Bilduk zer egin du? Ezer gutxi orain arte, 5 pertsona kontratatu dira baina hau ez da berria. Betidanik egin da eta 6 hilabetetarako da bakarrik. Gipuzkoako kasuan, Garitano jaunak esan du ez dela behar krisiari aurre egiteko planik. Badirudi bere lehenasuna zaborren kudeaketa dela, ez beste ezer, ikaragarria benetan.

Urriaren 21eko hauteskundeak garrantzi berezia daukate. Nork gobernatuko gaituen erabakiko baita. Gure apostua garbia da, aurrekariak ikusita, egoera honi buelta eman-go dion bakarra EAJ/PNV izango da.

### Gazte antolakunde berria **Gazte antolakunde berria**

Noiz arte jasango dugu zapalkuntza hau? Nola erantzungo diogu?

Galdera zabalak dira hauek, hamaika erantzun izan ditzaketanak, bata bestearengandik asko urruntzen ez direnak. Norberak bere buruan argi dauzka bere arazoak zeintzuk diren, baina, asko kostatzen zaigu batzen gaituzten arazo horiek kanporatzea.

Aisialdi eredu, langabezia eta baldintza prekarioak, gizarte matxista, gazterik gabeko kale hutsak, hizkuntza arrotzak, espekulazioa, gaur egungo hezkuntza eredu, indar polizialak... beste gizarte eredu bat posible dela argi dago, baina, elkarlanik ez bada, zaila da gizarte hau eraldatzeko tresnak sortzea.

Denon lana da gizarte parekide euskaldun bat sortzea, euskal kurrikuluma izango duen hezkuntza sistema eraikitzea, aisialdi eredu askatzaileez disfrutatzea, lan baldintza duinak aldarrikatu eta lortzea, etxebizitza eskubidea bermatzea, gizarte antolamendu iraunkor bat garatzea, hau da, Euskal Herri aske bat eraikitzeko bidea egitea. Horretarako, Soraluzen Gazte Antolakunde berria sortzeko asmoa daukagu. ANIMATU ETA PARTE HARTU!!!

Urriaren 5ean, 20:30ean Zubi Nagusian.

## Bittartetik



## Gora jai parekide eta parte-hartzaileak!

Jai Batzordeko kide naizen aldetik, le-rrro hauek erabili nahi ditut aurtengo Santiago-Santa Ana festetako balorazio laburra egiteko. Jaiak herriak herriaren-tzat eginak izan behar direla pentsatu izan dut beti, proposamen eta ideia berriak ikasteko aukera ona izateaz gain, jaiak parte hartzaile bihurtzen direlako. Krisi ekonomikoak etxeetan murrizketak egite-tera behartu gaituen moduan, festetako aurrekontuan ere guraizeak sartu behar izan ditugu. Ondorioz aurrekontua asko murriztu da eta imajinarioari heldu diogu.

Txupin jaurtiketarako argi lagatzen du herri honek badituela pertsona interes-garriak, nahiz eta maiz merezimendua gutxi aitortzen zaien. Gainontzeko egitaraua osatzeko herriko artista eta pertsona adimentsuengana jo ohi dugu eta aitortu behar dut, herri honetan talentu handiko herritar ugari dagoela!

Galtzagorriek, danborradak, Gora Nafarroa! kantaldiak, ZZ Blues Bandek, Urrats Dantza Taldeak, DJ Gordik... honek eta aipatu ez ditudan beste eragile, norbana eta elkarte asko miresgarriak egiten dituzte jaiak. Gau elektronikoa kokatu nahi dut aurtengo nobedade nagusi moduan. Gazte talde batek proposatuta eta beraien ahaleginei esker aurrera eramandako emanaldiak arrakasta itzela izan zuen publikoaren partetik.

Parte hartzeari begira, gainontzeko proposamenek erantzun positiboa izan dutela iruditzen zait; punteria lehiaketak edota oliba hezur jaurtiketarako esaterako. Txirlo jaurtiketarako, toka txapelketak, apar festak, paella lehiaketak... herritar ugari batzen dituzten ekitaldiak dira. Kultur arteko jaiak aipatu gabe ezin bukatu. Jatekoaren bitartez, herrian dauden kultura ezberdinetako ateak zabaltzen dizkigute, ilusio handiz gainera!

Zuei, festetan parte hartu duzuenoi edo hartuko duzuenoi, eskerrik beroenak luzatu nahi dizkizuet! Biba Plaentxiko jaiak!

## Enteratu Hadi!!

herriko kontuekin [www.plaentxia.com](http://www.plaentxia.com)-en



### EAEko HAUTESKUNDEAK

#### Herriko emaitzak eta alderdien balorazioak

Urriaren 21ean, minutuz minutuko jarraipena.



# “Egoeraren aurrean mobilizatzeko beharra sentitu dugu”

*Bizimodu duinaren aldeko batzarra osatu dute herrian.*



Julen Mendikute eta Ilargi Etxeberria, batzarreko kideak.

Martxoko greba orokorraren arrastotik egoera sozioekonomikoaren inguruko gaiak landuko dituen mugimendua sortu da herrian: Bizimodu duinaren aldeko batzarra. Aldaketarako giltza norbanakoarengan dagoela sinestuta, hausnarketa bultzatzea helburu duten “ekimen kolektiboak” antolatzeke asmoa dute. Irailean egin dute lehenengoa, banku eta aurrezki kuxetan egindako protesta. Hurrengo batzarra urriaren 18an egingo dute Zinean, 19:00etan.

**Zeintzuk dira batzarreko kideon helburuak?**  
Pobreziarekin bukatzea, etxebizitza eskubidea aldarrikatzea, pentsioak eta diru-sarrera duinak bermatzea... Herritarren hausnarketa bultzatu eta oinarritzko eskubideak bermatuta izateko borroka jarri nahi dugu martxan. Kaleko mobilizazio eta aldarrikapenak izango dira gure lan tresnetako batzuk. Denon ongizatea bermatzen duen sistema eraikitzea da gure helburua.

**“Egunero zazpi familia lagatzen dituzte kalean”**

**Zuek zergatik parte hartzen duzue batzarrean?**

Egoera gogor eta larri honen aurrean kalean mobilizatzeko beharra sentitu genuen, norbanakotik hasita, neurri antiso-

zialei erantzun kolektiboa emateko. Bizi dugun eredu liberal-kapitalistan gutxi batzuen interes ekonomikoak defendatzen dituzte, eta gehiengoaren oinarritzko eskubideen bermea ahaztu dute.

**“Lanpostua galtzeko aitzakiapen herritarrak eta langile klasea isilarazi nahi dituzte”**

**Zein etorkizun ikusten diozue gaur egungo gizarteari?**

Egoera hau jasanezina da eta ez du hobera egingo. Politiko eta bankariek poltsikoak milaka milioi euroz betetzen dituzten bitartean etxeen desjabetzeekin egunero zazpi familia lagatzen dituzte kalean. Osasungintzan, hezkuntza publikoan, babes sozialerako esparruan (oinarritzko errenta edo gutxieneko diru-sarrerak), euskara edo kulturaren murrizketak gogorak egiten diharduten bitartean, denonak diren diruak beharrezkoak ez diren makro-proiektuak egitera bideratzen dituzte, AHTa edo superportuak eraikitzea esaterako. Hori da aberatsek, guztiaren gainetik egin nahi duten politika.

**Herritarrak kontziente dira horretaz?**

Beldurraren gizartea eraiki dute. Lanpostua galtzeko aitzakiapen herritarrak eta langile klasea isilarazi nahi dituzte, baita mugimendu sozialak apal-apal mantendu. Batzarrek sistema honekin ados ez gaudenon elkargune eta bozgorailu izan nahi du. Zabalik dago parte hartu nahi duenarendako. Altxamendu soziala bilatzen dugu eta horretarako eztabaiden bitartez, autokritika egitea eta pentsamendu kritikoa gartzeta ezinbestekoa dela deritzogu.

**“Jantoki soziala bideratu nahi dugu”**

**Zer egin duzue orain arte?**

Apirilean batu ginen lehenengoz eta ordutik asko izan dira batzarretan plazaratu diren kezak eta eginbeharrak. Elkarlanaren beharra azpimarratu da behin eta berriz. Bankuetan protesta-ekintza egin dugu banketxeen jokaera lotsagarria salatzeke.

Ortu komunala landatzea da batzarrek duen beste asmoetako bat. Autogestioaren bitartez jantoki soziala bideratu nahi dugu, herritik herriarentzat.





# 40.000 euro euritearen kalteak konpontzeko

4.158,81 euroko aurrekontua onartu du udaleko gobernu taldeak izako azaroko euriteak baserri inguruetan eragindako kalteak konpontzeko. Udalaren esanetan egindako

“gestioen ondorioz” hasieran uste zena baino diru gutxiago erabili beharko da konponketak bideratzeko. Txurruka baserriaren etxe aurreko horma konpontzeko izango dira 6.717,56 euro, Osuma inguruko errekatxoa bideratu eta bidea indartzeko 11.222,28 euro, Untzeta aldeko errekatxoko bi hodi elkartzeko izango dira 8.845,52 euro eta beste 14.797,45 euro Aldasoro Etxetxo baserriko luizi eta errekatxoa bideratzeko. Gainerako dirua lanon segurtasun eta osasun gastuetarako erabiliko da.

### Baserri auzoekin bilera urriari

Urriaren 9an, martitzena, arratsaldeko 18:30ean batuko da udala baserrietako bizilagunekin. Herri-guneko auzoetako bizilagunekin batu ostean, baserri-auzoetan bizi diren herritarren txanda izango da oraingoan.



Txurrukara bidean azaroko euriteek eragindako kalteak.

## Hileko puntua



### Espainiako bandera ezartzeko agindua

Udalak jakinarazi du Espainiako bandera ezartzeko agindua dakarren idatzia jaso duela. Bilduren udal taldeak “inposiziotzat” jo du agindua eta oposizioko alderdiekin batera, “inposizio hau salatu eta herri gisa eman beharreko erantzun bateratua adosteko” lanari ekingo dietela adierazi dute.

## Motzean

### Sutea izan zen San Andresen

Zabaleta baserrikoek goizaldean piztu eta ustez itzalita laga zuten suak sortu zuen Zabaletako zelaian gora eta Txitxikua izeneko lursailean dagoen pinadiraino zabaldu zen sua. Zorionez, pinadiaren erdialdera dagoen errepedeak suaren bidea eten zuen eta auzotarrek eta suhiltzaileek sua itzali ahal izan zuten.



### Kilometroak jairako autobusa

Urriaren 7an Andoainen egingo den Kilometroak jaira joateko autobusa antolatatu du Pil-pilean euskara elkarteak. Ikastolen festara joan nahi duenak urriaren 3a baino lehen eman beharko du izena euskara@pilpilean.com helbidean edo 943 751304 telefonora deituta.

## FotoNotizia



### Nekazaritza biointensiboa lantzen

Irailaren hasieran, hogeiren bat lagunek nekazaritza biointensiboan trebatzeko oinarrizko edukiak landu zituzten herrian Fernando Pia argentinar adituarekin. Konposta, hazitegiak, bankalak... zela egiten diren ikasi zuten. Zeleta baserriko Jon Martin izan da ikastaroaren antolatzailea.

**Elizpe Hartz klinika**

Gure zerbitzuak:

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

DOMAGIENOKO BERRAKUSKETTAK  
FINANTZAKETA ZURE NEKARITZA  
KONPROMISOEN GABEKO AURREKONTUA


MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hartz programa)

Tel. 943 75 25 67  
Elizburu, 3 behea, Soralueze

Javier Alonso Zelaeta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434

**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

**Aldarrikapenak Oroimenaren Egunean**  
Gerra Zibilean gertatutakoaren inguruko egia osoa ezagutzeko beharra azpimarratu zuten irailaren 22an Soraluze 1936 lan taldeak eta udalak Oroimenaren Egunean antolatutako ekitaldian. Herritar ugari batu zen egia, aitortza eta erreparamendua aldarrikatu zuen ekitaldira. Aurrekua, krabelin eskaintza, adierazpen instituzionala eta kantaldiak osatu zuten ekitaldia. "Osasuna, maitasuna eta askatasuna izan deila danondako" esanez amaitu zen. Argazkiak eta adierazpen instituzionala: 



Iturria: Juanma Berrueta

**Gazteak antolatzera deitu dituzte**  
Gazte Antolakunde berriaren asmoak eta nahiak aurkeztuko ditu urriaren 5ean herriko gazte talde batek. "Euskal Herri askea eraikitzea" dute helburu eta bide horretan, gazteen problematikak zeintzuk diren aztertu eta herriko gazteekin elkarbanatu nahi dituzte. Aurkezpena Zubi Nagusian izango da 20:30ean eta jarraian afori-merienda egingo dute. Gauean, herriko musika taldeek aurkezpenarekin bat egin eta kontzertuak eskainiko dituzte Gaztetxean.



**Irazabalbeitiaren monolitoa apurtu dute**  
Joan den astean herritar batek Angel Irazabalbeitiaren omenez Karakaten jarritako monolitoa apurtuta zegoela jakinarazi zion erredakzioari. Modu honetako ekintzek "bake bidean hasitako bidea oztopatu beste helbururik" ez dutela adierazi du Soraluzeko Ezker abertzaleak.

## Grebak jarraipen handia herrian

Eguazteneko grebak jarraipen handia izan zuen herrian eta laneko jarduna oso txikia izan zen egun osoan zehar. Salbuespen bakanen bat izan ezik, dendak eta tabernak, lantegirik gehienak (%90) eta hezkuntzako zentruak (%80) ere itxita izan ziren. Goizaldean, berrogeitamarren bat lagunek manifestazioa egin zuten herriko kaleetan barrena. Horren ostean kaleak hutsik gelditu ziren.

### Bankuen aurkako protestak

Irailaren 20an *Bizimodu duin baten aldeko batzarrak* deituta herritar talde batek protestak egin zituen herriko banketxeetan eta aurrezki kutxetan. Azken hauen jarduna eta Espainiako Gobernuak ezarritako murrizketak salatzea izan zen ekimenaren helburua. Etorbizunean ere alor sozioekonomikoak gauzak beste era batera egiteko beharra aldarrikatzen jarraituko du.



Greba egunean eginiko manifestazioa.



Murrizketak salatzeako bankuetan eginiko protestaldia.

## Hitzarmena sinatu dute udalak eta AEK-k

Lankidetzarako hitzarmena sinatu dute udalak eta Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK). Hitzarmen honen bitartez, AEK-k Soraluzen euskalduntze eta alfabetatze eskolak eskaintzeko konpromisoa berretsi du eta baita euskara eskolen osagarri diren jarduerak antolatzeko ere. Udalak, bere aldetik, AEKren jarduna diruz laguntzen jarraituko du eta euskaltegia dagoen lokalaren lagapena egingo dio beste bost urterako.



Iñaki Korta AEKren euskaltegiko arduraduna eta Mikel Santiago Udaleko Euskara Batzordeburua.

**MAPFRE**  
SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Alinhoa Ibarzabal

Gabolatx, 5-8 Behaa  
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)  
Email: ibarzbals00@gmail.com  
alinhoa.ibarzbals@gmail.com

TR: 943 75 16 58  
Mugiorra: 649 49 79 59  
649 75 90 78  
Fax: 943 75 16 10

**MARI MAR HARATEGIA**

Gurean Euskal Herriko produktuak!

Tel. 934 75 24 02  
Santa Ana kalea, 4 Soraluze



# Pelota kluba nagusien mailara berriz

Urtetan nagusien mailan lehiatu barik egon ostean, aurten Soraluzezen izena bueltatuko da txapelketa ofizialetara. Dagoeneko lehen partiduak jokatu dituzte.

Hamar urte baino gehiago ziren Soraluze-ko pelota eskola nagusien mailako txapelketa ofizialetan lehiatzen ez zela. Aurten ostera, Elgetako Ozkarbi taldeko pelotariekin batera nagusien taldea osatu ostean, lehen dira berriro.

Uda aurretik Elgetako Ozkarbi atek itxi zituen, bere jardunarekin jarraitzeko zailtasunak zituztelako. Ondorioz, haren izenean jokatzeko zuten sei pelotariak, Aitor Atxotegi soraluzetarra barne, klubik barik gelditu ziren. Orduan Soraluzeko pe-

lota taldeak Soraluzezen izenean jokatzeko aukera jarri zuten mahai gainean eta aho batez onartu zuten guztiak. Modu horretara, aurreko urteetan lortua zuten afizionatu mailarik gorenenean jokatzeko plazari eutsi ahal izan diote.

Bestalde, arduradunek adierazi dute udalak ere begi onez jaso duela klubaren indarberritzea eta bere esku dagoen guztian laguntzeko borondatea erakutsi diela. Horrekin batera, bereziki esker-tu nahi dute Soraluze kooperatibak ematen dien laguntza eta babesa.



Pelota eskolan osatuko duten pelotariak: Kortabarria, Aldape, Irureta, Andreu, Epelde, Atxotegi, Fernandez, Tajuelo, Santamaria eta Ubera.

## PELOTARIAK

### Nagusiak

Aitor Atxotegi  
Aitor Ubera (Elgeta)  
Iñigo Irureta (Beasain)  
Andoni Aldape (Mallabia)  
Xabier Andreu (Azkoitia)  
Oier Epelde (Azkoitia)

### Txapelketak

#### Iraila-abendua

Gipuzkoako Txapelketa (Ohorezko mailan bikoteka eta lehenengo mailan banaka)

#### Urtarrila Martxoa

Euskal Herriko liga

#### Apirila-ekaina

Deba bailarako txapelketa

### Jubenilak

Gorka Santamaria  
Ibai Kortabarria

### Txapelketa

Gipuzkoako Txapelketa binaka, jubenil 2. Mailan

### Infantilak

Markel Fernandez  
Ibai Tajuelo

### Alebinak

Julen Gallastegi  
Iker Urkiri



# “Kanpoko pelotariak harrituta gelditzen dira hemengo afizioarekin” *Aitor Atxotegi*

Pelota taldeko arduradun nagusiak, Aitor Atxotegi eta Koldo Heriz gustora daude “kluba indarberritzeko bidean jartzea lortu dutelako”. Atxotegiren esanetan “2.000. urte inguruan frontoia itxi eta herriko pelotariak inguruko herrietako klubetara sakabanatu zirenetik pelota eskolak ez du izan lehen zuen indarra”. Orain, lehenagoko indar hori berreskuratzeko aukera ikusten dute berriz eta “ilusioz beteta” horretantxe ahaleginduko dira.



Pelota taldeko gaztetxoek Atxotegi, Heriz eta Alustizarekin.

**“Pelotari nagusiak izatea garrantzitsua da gaztetxoendako”**

**“Barixaku askotan partiduak izango dira berriz herrian”**

### Nagusiak erreferentzia gaztetxoendako

Garrantzitsua omen da nagusien mailako pelotariak herriaren izenean jokatzea eta are garrantzitsuagoa herrian entrenatzea. “Gaztetxoek erreferentziak behar dituzte, bestela adin batera arte jarraitzen dute baina gero laga egiten dute edo futbolera pasatzen dira”. Hala ere, azken urteetan egindako lanari esker gaur egun berrogei neska-mutiko inguruk dihardute pelota eskolan.

### Afiziorik handienetakoa duen herria

Herrian dagoen afizioa ere azpimarratzeko moduko gaia da Atxotegiren ustez: “Soraluzera datozen pelotariak harrituta gelditzen dira hemen dagoen afizioa ikusita. Hemen edozein partidutan batzen dira berrogeitamar ikusletik gora eta hori oso herri gutxitan gertatzen da.” Gustora daude herriko lehenengo jaialdian jendeak emandako erantzunarekin. Izan ere ehun lagun inguru batu ziren. Aurrerantzean herrian pelota partidu asko jokatu direla azpimarratu nahi izan dute eta dei egin diete herritarrei berriro frontoira joateko ohitura berreskuratzeko.

## Pelotaren historia luzea herrian

Herriko pelotazaletasunaren aztarnarik zaharrena frontoi zaharra izango da. Joku zuzena delakoa praktikatzeko harrizko harmailak ere bazituen bi aldeetan. Zaletasun beraren adierazle esanguratsua da XX. mende hasieran eraiki zuten Sesma frontoia. Hasierako urteetan profesionalen arteko partiduak ere jokaten zituzten bertan. 70. Hamarkadan eraitsi zuten egurrezko egitura egoera txarrean zuela eta. Atano III.a azkoitiar pelotari ezagunak han entrenatzen omen zuten, Soraluzen lanean jardun zuten garaian.

Eskuzko modalitatearekin batera zesta puntako jokalari asko ere eman ditu Soraluzek. Markinako frontoian hezitakoak gehienak, euretako askok Miami eta Filipinar uharteetara jo zuten aukera bila.

Eskuzko pelotari dagokionez, 1980. hamarkadaren hasiera aldera Peio Arrieta segurarrak martxan jarri zuten pelota eskolak pelotari bikain asko eman zituen, gaur egun maila profesionalen jokatzeko duen Laskurain bera esaterako. 2001. urtean frontoia itxi zenean egin zuten behera pelota eskolak eta ordutik gaur arte ez du berriz indarberritzerik lortu.



Gipuzkoako Herriarteako Txapelketa irabazi zuen taldea: Rodriguez, Laskurain, Jauregi, Alberdi, Txurruka, Muguruza, Heriz, Fernandez eta Arrieta.

Langabezia gora, administrazioaren murrizketak, bankuendako laguntzak, erreskate hotsak... egoera ekonomikoa okerrera doa. Bitartean, gero eta gehiago dira gizarte mobilizazioak. Soraluzen "bizimodu duinaren aldeko mugimenduak" protesta ekintza egin du bankuetan, greba eguna pasatu berri da...

## Zer egitea dagokigu herritarroi egoera sozioekonomiko honetan?



Julian Viciosa

Norabidea aldatzea zaila izango da baina nere ustez greba orokorra beharrezkoa da. Mugitu beharra dago gertatzen denari aurre egiteko. Bankuei dirua eman eta guri kentzen dihardute. Horrek dena esanda dago.



Beatriz Benito

Ni langabetua naiz eta pixkat desmotibatuta nago. Momentu honetan mugitzea guztiz justifikatuta dago eta beharrezkoa da. Ulertzen dut jendeak beldurra izatea. Eskerrak batzun batzuek aurpegia ematen duten egoera salatzen.



Borja Leon

Geureagaitik borroka egin behar genuke baina beldurra dago enpresariari aurre egin eta langabezira joateko. Bakoitzak bereari begiratzen dio eta horrela zaila da. Dirua eraman dutenek ordaintzea lortu behar genuke.



Toñi Almansa

Gertatzen diharduena pasada bat da. Begiratu zela dauden gure inguruko familiak. Ni mugitzen ez banaiz arrazoia da ez dudala neure burua gai ikusten ezer esaten joateko baina arrazoi asko daude mugitzeko.

### Lehiaketa

Zein da?



#### Aurreko aleko erantzuna

Angel Garro

#### Irabazlea



Aitziber Mayo

**Saria:**  
Iñarra harategian  
30 euro kontsumit-  
zeko bonoa

Oharra: Lehiaketako irabazlea aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egiten da.

Deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.

 **PASCUAL CHURRUGA, s.a.**  
Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Errekalde 21  
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06  
T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61

**SAN ANDRES**  
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,  
eta berogailuak  
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696



## Kirol emaitzak

### PELOTA

Titin III – Laskurain	17
Berasaluze VIII – Beroiz	22
Olaizola I – Otxandorena	22
Jaunarena – Laskurain	12
<b>Atxotegi – Aldape</b>	<b>22</b>
Arrieta – Grajal	16
<b>Epelde</b>	<b>22</b>
Loitegi	12
<b>Atxotegi – Iruret</b>	<b>14</b>
Larrañaga – Murgiondo	22
<b>Santamaria – Kortaberria</b>	<b>8</b>
Ordiziako bikotea	22

### FUTBOLA

Sora (Erreg. Pref.) – Mutriku	0-0
Bergara F.T. – Sora (Erreg.)	3-3
Aretxabaleta – Sora (Jub.)	2-1
Sora (Kad.) – Mutriku	0-4

## Agenda

### PELOTA

Barixakua 28, 19:45ean Arnedon (etb1)  
Titin III – Merino II  
Xala – Laskurain

Barixakua 28, 22:00etan Arane kiroldegian  
Santamaria – Kortaberria  
Zubizarreta – Agirresarobe

**Atxotegi – Aldape**  
Artola – Arratibel

**Domeka 30, 11:00etan Usurbilen**  
Irueta – Usurbileko ordezkaria

### FUTBOLA

Zapatua 29, 16:00etan Mintxetan  
Elgoibar C.D. – Sora (Erreg. Pref.)

Zapatua 29, 16:30ean Ezozin  
Sora (Erreg.) – Eibartarrak

Zapatua 29, 11:30ean Ezozin  
Sora (Jub.) – Urki C.D.

Zapatua 29, 17:30ean Unben  
Eibartarrak – Sora (Kad. Mutilak)

Zapatua 29, 10:00etan Almen  
Arizmendi – Sora (Kad. Neskak)

### HIRU-TXIRLO JAURTIKETA

XXIII. Hiru-txirlo bolo txapelketa  
II. jardunaldia  
Zapatua 29, 17:00etan Ezozin

## VI. Marraskilo Tourra bihar

libibidea aurreko urteetako berdina izango da. Mendizaleak goizeko 6:00etan abiatuko dira Plaza Barritik. Sagar Errekatik gora, Topinburu, Gallastegitorre, Krabelinaiztik pasatuta Txurrukenera jeitsiko dira eta handik Atsedean txaboletara igo, Karakatetik zehar Ezozibidera jeitsi eta Plaza Barrixan amaitzeko. Denera 35 kilometroko ibilbidea. Ostean, parte hartzaile denek batera bazkaria izango dute Frontoian. Iaz 100 lagunek egin zuten mendi itzulia eta eguraldiak lagunduz gero, iazko parte hartzea mantendu edo areagotu egingo dela uste dute Mendi Taldekoek. Irteeran bertan izena emateko aukera egongo da, 20 euro ordainduta.

Mendi itzulian jasotako argazki eta bideoak:



## Kadeteak jokalaria faltan

Aurten, hamar taldek jantziko dituzte Sorako koloreak: mutiletan erregional preferenteak, erregionalak, jubenilak, kadeteak, infantilak, alebinak eta benjaminak (2) eta nesketan kadeteak eta infantilak. Talde gehienak osatuta badaude ere zuzendaritzak jakinarazi du kadete mailako nesken eta mutilen taldeetan jokalaria behar dituztela. Hori dela eta, izena eman nahi dutenek astelehenera 19:30etik aurrera Txoko kafe-tegian izango dute horretarako aukera.




Nesken zein mutilen taldeek behar dituzte jokalaria.

## Urriaren 10ean kiroldegiko urteko batzarra

Arane kiroldegiko abonatu en urteko batzar nagusia urriaren 10ean egingo da herriko antzokian, arratsaldeko 19:00etan. Bazkideek, euren zalantzak eta iradokizunak aurkezteko eta proposamenak egiteko

aukera izango dute bertan. Besteak beste, joan zen urtean udalak proposatuta kiroldegia jardunak sortzen zuen defizita 60.000 euroan aurrezteko egindako doikuntzen balorazioa egingo dute.



# Kale eta aretoko emanaldiak urriko antzerki jardunaldietan

Berritasunekin dator udaleko kultura sailak Urrirako antolatatu duen antzerki jardunaldia. Zikloa hilaren 18an hasi eta 21era bitartean luzatuko da eta lau antzezlan eskaintzeaz gain, "Nada que demostrar", "Los perfectos" antzezlanaren prestaketa prozesua erakusten duen dokumentalaren proiektzioa egingo dute. Herriko ume eta gurasoei zuzenduta euskaraz ekoiztutako bi antzezlan batzen ditu aurtengo jardunaldiak.

**Hemen kartelera:**

**Urriak 18, eguena**

**11:30ean eta 15:00etan, ikastetxean:** "Txin-txilipurdi erregea", 3-5 urteko umeentzat. Sarrera doakoa.

**21:00etan, Zinean:** "Nada que demostrar" dokumental emanaldia. Sarrera: 2 euro

**Urriak 19, barixakua**

**22:15ean, Zinean:** "El amor en tiempos del corralito", Los Rotos antzerki taldearen eskutik. Sarrera: 5 euro.

**Urriak 20, zapatua**

**20:00etan, Zubi nagusian:** "Exodo" kale ikuskizuna.

**Urriak 21, domeka**

**18:00etan, Zinean:** "Auzokideak", 5 urtetik goragoko ume eta gurasoentzat. Sarrera: helduek 3 euro, umeek euro 1.



Iturria: Euskadiko Produkzio Eszenikoen Enpresa Elkartuak

# Ospakizunez bete da uda bukaera

Jai giro usainak herriko auzo eta bazterrak hartzen ditu abuztuko oporraldian. Eguraldia lagun, asko izan dira Andramarixetan, San Martzialen edota Mesedeetako Amaren jaietan parte hartu duten herritarak. Osintxuarrak fin-fin etorri ziren bisitan eta esker ona adierazteko

merienda goxoa prestatu zitzairen. Aurrekontu txikiagoarekin baina elkarlanaz baliatuz auzo ospakizunetan hamarnaka ekintza eraman dituzte aurrera. Haurrentzako jolasak, janari lehiaketak, herri bazkariak edota karta txapelketak ez dira falta izan abuztuko jai egunetan.



Mesedeetako Amaren jaiak



Osintxuarren bisita



San Martzialetakoa paella lehiaketa

## Kultur agenda

**Urriak 4, eguena**

IPUIN KONTAKETA SAIOA

6-10 urte arteko umeentzat, Irati Trebiñoren eskutik.

17:00etan, Kiroldegiko erakusketa aretoan  
Ant: Udal liburategia

**Urriaren 16tik 31ra**

ARGAZKI ERAKUSKETA

Jon Azofra, "Bi baten partez"

Astegunetan, 19:00etatik 20:30era. Zapatu eta jaiegunetan: 12:00etatik 13:30era.

Ant: Kontrargi Argazki Kolektiboa

**Urriak 16, martitzena**

HARAGI GISATU TXAPELKETA

10:00etan, Itxaropenan.

Ostean, bazkaria.

Ant: Itxaropena Jubilatuen Etxea

**Urriak 23, martitzena**

HITZALDIA

"Atzerritarrei buruzko legea"

17:00etan, Zinean.

Ant: Udaleko Gizarte Ongizate Saila

**Urriak 24, eguaztena**

DOKUMENTALA

"El problema. Testimonio del Pueblo Saharaui". 22:15ean, Zinean

Ant: Udaleko Gizarte Ongizate Saila

**Urriak 31, eguaztena**

DOKUMENTALA

"Barrura begiratzeko leihoak"

22:15ean, Zinean.

Ant: Udaleko Gizarte Ongizate Saila

## Motzean

**Euskal dantzak ikasteko matrikulazioa zabalik**

Helduentzat fandango eta arin-arin ikastaroa antolatuz ekingo dio Urrats Dantza Taldeak ikasturteari. Lehenengo eskola urriaren 5ean eskainiko dute, 19:30ean Herri eskolako aretoan. Gaztañerre azoka bitartean luzatuko dute ikastaroa eta gero, dantza ezberdinak jorratuko dituzte. Izena eman nahi dutenek entsegu orduetan dute horretarako aukera.

**GILA TABERNA**  
GOIZEKO 6:30ETATIK AUERRERA ZABALIK  
**GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK**  
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



**KM Desing**  
Diseinua eta Formena  
Poligono Amillaga, nº 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

**Altzairuen fabrikazioa:**

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



## Zorion agurrak



Ekaitz Garmendia Galarraga  
Abuztuan 17xan 3 urte!  
Zorionak maitxia danon partez!



Irene Agirre Arrillaga  
Irailan 6xan 3 urte! Zorionak  
popxolintxo, jarraitu beti  
bezain alai eta berrixu!



Oinatz Beretxinaga Heriz  
Irailan 4an urtebete Zorionak  
potxolo!! Gure bizipoza zara!  
Patxo haundi bat etxekuen  
partez.



Joel Donoso Bouzas  
Irailan 14an 6 urte!  
Muxu topolo haundi asko,  
guraso eta anaian partez!



Josu Leturiondo Garcia  
Irailan 9xan, 5 urte!  
Zorionak eta muxu haundi  
bat, etxekuen partez!



Izar Makinai eta Maria Jesus Otal  
Abuztuan 3an 7 eta 61 urte!  
Zorionak bikote eta muxu haundi bat,  
familixian partez!



Nora Mendia Altuna  
Irailan 30ian 8 urte!  
Zorionak familixian partez  
neskatxa!



Yusef Elkanouni  
Irailan 13an 5 urte!  
Zorionak eta patxo  
modua, Zugaitz, Btisan  
eta etxeko guztion partez!



Sugar Ostolaza  
Abuztuan 10ian 3 urte!  
Zorionak sorgintxo,  
patxuak maittasunez  
eta laztan berezi bat  
lraultzan partez!



Jose Mari eta Sandra  
Irailan 5ian zilarrezko ezteiak bete dittuzue!  
Muxu pila eta zorionik beruena, etxekuen partez!



Zorionak Txema eta Maria!  
Zuen maittasunak urte askuan iraua deixala,  
familixian partez!



Eñaut Cerrejon Atxa  
Irailan 11n 4 urte!  
Zorionak mutil haundi!  
Muxuak danon partez



Euken Mendia Hernaez  
Urrian 2xan 4 urte!  
Zorionak bitxito! Muxu  
haundi bat Nahia eta  
etxekuen partez!



Zorionak amatxo  
Irailan 26xan, Muxu  
haundi haundixak  
Jone, Miren eta Aitzen  
partez!



Zorionak Maia eta Egoitz  
earra paria, karakola ta baria. Segi barrezka urte  
pilla batez. Muxu haundi bana.



Peru eta Aiuri  
Bi eta lau urte bete dozue! Jaso txokolatzeko  
muxu goxo eta koloretako irribarre pilaaa,  
etxekuen eta pil-eko lagunen partez!

## Jaiotakoak eta hildakoak



Joanes Arantzeta Goenaga  
Julen Aspe Jauregi  
Abir Mannan Nasic  
Antxon Ugarte Larreategi  
Debra Sofia Zazo Tigrero



Juan Mari Areitioaurrena Laspita  
Josefa Basterrika Dorronsoro  
Joan Antonio Cerrejon Onaindia  
Gloria Ecenarro Uzin  
Fernando Gallardo Gisada  
Maria Luisa Gorostidi Zubillaga  
Eusebio Oregi Leturiondo



### IÑAKI DE MIGUEL ALONSO

2011KO IRAILAREN 10EAN HIL ZEN,  
81 URTE ZITUELA

*“Gure oroimenean,  
zure irudia ez da inoiz faltako  
eta bihotzez  
ta sinismenez,  
ez zara hiltzen betiko”*

Lehenengo urteurren meza bihar izango da, hilak 29, Santa Maria la Real Parrokian.



Iturria: Jon Arrieta

## PEIO ARRIETAREN PELOTA ESKOLA

Peio Arrietaren pelota eskolako ikasleak ikastolako frontoian 80. hamarkadaren amaiera aldera. Eguraldi ona zenean ikastolako frontoian egiten zituzten entrenamenduak eta Batzokiko frontoian eguraldi txarrekin.

Kiroldegiko frontoia egin zutenean hara pasatu ziren. Gaztetxo askok eta askok parte hartu zuten Pelloren pelota eskolan. Soraluzeko pelotari harrobiaren urrezko sasoiaren izan zen.

Ezkerretik eskumara hauek dira argazkian azaltzen direnak:

Heliodoro, Orlando, Enrike Soraluze, Oskar Garitano, Gorka Arana, Oskar Jorge, Igor Zerrejon, Iker Makinai, Andima, Peio Arrieta, Oier Zerrejon, Jon Arrieta, (Ezezaguna), Jon Gabilondo, Asier Gonzalez, Jon Elizburu eta Jon Aldazabal.



**INES GONZALEZ BABARRO**

2011KO ABUZTUAREN 23AN HIL ZEN,  
32 URTE ZITUELA

*"Ines maittia, beti egongo zara gure bihotzian,  
asko maitte zaittugu"*

Gurasuak, anai-arrebak, ilobak eta Angel



**INES GONZALEZ BABARRO**

2011KO ABUZTUAREN 23AN HIL ZEN,  
32 URTE ZITUELA

*"Lurrean aingeru izan zara,  
zeruan berdin jarraitzeko,  
jaso lagun guztion maitasuna  
amets hori betetzeko"*

Zure lagunak




# Ni baino hobeto daguana... VI. udako argazki lehiaketa

STONH  
JUL 26 PM  
RAMIE  
1962  
OUR RETURN



Lore Gallastegi  
IRABAZLEA



PUL 4  
27  
10-13  
15-16  
52100



...txarrri galanta



# IREKI BIHOTZA BERBALAGUNENTZAKO



mintzapraktika



PIL-PILEAN  
EUSKARA ELKARTEA

## IZENA EMATEKO:

Irailaren 10etik urriaren 12ra  
Pil Pilean, Soraluzeko AEKn edo Udaleko Euskara Zerbitzuan

## INFORMAZIOA:

Pil Pilean Euskara Elkarte (Errabal 15, 1.solairua)  
943 75 13 04 • euskara@pilpilean.com

SUSTATZAILEAK:



PIL-PILEAN



topagunea

BARRILEAK:



LAGUNTZAILEAK:



Gareno Ikasteko  
para el aprendizaje  
por la competencia